

Ordizian, Zozomikote

Zozomikote iritsiko da Ordiziara, **Kaldereroen** konpartsak babestuta, ohiko barrabaskeriak egitera, Inauteriak iragartzera etorriko da. Barrena jauregiko plazan, 18:30ean da hitzordua. Urrup antzerki taldeko kideak aurkeztuko dute herritarren aurrean. Ondoren, erdigunean kalejira egingo du kaldereroekin, Oroith eta Oroith-txiki abesbatzekin, Urdanetako Ahotsak taldearekin eta Ritmo de Luna dantza eskolako ikasleekin. Kalejira Plaza Nagusian amaituko da eta han, Urrupekoak gidari direla, bere inguruan sortutako **kontakizuna antzeztuko dute**, eta **sutan erreko dute**.

Herriko haur guztiek haren berri izan dutelako aurretik. **Zozomikote** protagonista duten liburu eta material didaktikoa landu dituzte ikasgeletan. Patxi Zubizarreta idazle ordiziarak idatzi du ipuina eta Jokin Mitxelenak ilustratu. Soinean daramatzan hartzaren buztan, lamiaren orrazi eta denboraren orratzaren nondik norakoak azaltzen dituzte hitzez eta irudiz liburuan.

Zozomikote kaldereroen konpartsa indartzeko sortu zen pertsonaia da. Zubizarretak asmatu zuen, eta Xabier Arañak jarri zion aurpegia eta gorputza: «Pertsona dibertigarri, alproja, pikaroa, eskuluzea, lapurra, parranderoa, bizizalea» da, Zubizarretaren esnaetan. 2014an aurkeztu zuten, eta harrez gero erraldoi bat ere egin dute.

ZOZOMIKOTE BADATOR ORDIZIRA

Asteartea, 26:

Egunean zehar - Ordizian Merkatari elkarteko partaideen dendetan,
Dendaz denda Zozomikoteren bila.

18:30 - **Zozomipote** herriko auzoetan.

Asteazkena, 27:

Egunean zehar - Ordizian Merkatari elkarteko partaideen dendetan,
Dendaz denda Zozomikoteren bila.

18:30 - D'elikatuz zentroan Zozomikoteren **ipuina**ren kontaketa.

19:00 - **Zozomipote** erdigunean.

Osteguna, 28 eta ostirala, 29:

Egunean zehar - Ordizian Merkatari elkarteko partaideen dendetan,
Dendaz denda Zozomikoteren bila.

Larunbata:30

Egunean zehar - Ordizian Merkatari elkarteko partaideen dendetan,
Dendaz denda Zozomikoteren bila.

12:00 - **Kalderero Txiki**en desfilea (Jakintza Ikastola, Urdaneta Ikastetxea, Ordizia Musika eskolako banda txikia, Urdaneta Dantza Taldea eta Azen eta Erraldoien Konpartsa).

13:00 - **Kalderero**en paseoa erdigunean. (Umore ona abesbatza, Laguntasuna Errondaia, Antxon Imaz eta José Ignacio Iturrioz)

18:00 - **Txokolatada** Nikolas Lekuona plazan.

18:30 - Zozomikoteren **aurkezpena eta pregoia**. Urrup antzerki taldeak Zozomikoteren antzezpena. Konpartsarekin batera, Oroith eta Oroith txiki

abesbatzek, Urdaneta Ahotsak eta Ritmo de Luna dantza akademiak parte hartuko dute